

## Goiherri A, nagusi

Areso bigarren dago sokatira txapelketako sailkapenean ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2005-07-06 ▶ III. urtea ▶ 652. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Eskualdekoak zortzigarren izan dira Montmeloko moto lasterketan

**HIRUGARREN** ▶ Bere mailan hirugarren gelditu da Martin Lopetegi piloto irurarraren taldea

**GERTU** ▶ Erresistentzia Txapelketan 2. izan da, irabazlearengandik bost puntura ▶ 2



Eskuinean Martin Lopetegi irurarraren taldea gorritz jantzita podiumean, bera erdian dagoela. HITZA



## Lehen pilotakada hotsak Ttonttorpe frontoian

**LEABURU** ▶ Margotu eta estali egin dute; igandean izan ziren lehen partiduak San Pedro jaien barruan ▶ 6

**TOLOSA** ▶

## 'Ipuin moderno bat' ikusgai Aranburun

Dick Rekalderen argazkiak dira ▶ 4

**TOLOSA** ▶

## San Fermin jaiak izango dira gaur eta bihar Alde Zaharrean

Txupinazoa botako dute eguerdian plaza Berrian, auzotarrek eratuta ▶ 2



HITZA

**TOLOSA** ▶

## 750 fundazioak kamisetak atera ditu

Tartalo diseinu etxeak egin ditu ▶ 5

KIROLA ▶

# Gustura lortutako emaitzekin

## Eskualdekoen taldeak zortzigarren amaitu zuten Montmeloko 24 Orduak

IMANOL GARCIA

Gustura dago Martin Lopetegi piloto irurarra pasatu den aste-buruan Montmeloko 24 Orduetan egindako lanarekin. Ekipoan, eskualdeko Mikel Zabaleta ibartarra eta Antonio Lopetegi alegiarrak izan zira mekanikari lanetan.

Lasterketako sailkapen orokorrean zortzigarren amaitu zuten, guztira zirkuitoari 686 bira eman ondoren, 3.500 kilo-

metro inguru. *Stopstok* mailan, hau da, motorra seriekoa eta beraz moldaketarik egin gabekoa duen mailan, hirugarren amaitu zuten eta podiora igo ziren. Espainiako Erresistentzia Txapelketan bigarren postua lortu zuten, txapeldunetik bost puntura bakarrik gelditu ostean. «Urte hasieran lasterketa-aren batean podioa lortzea zen, baina lehenengoan bigarrean egin genuen, bigarrengoan hirugarren eta Montmelon zor-



Martin Lopetegui, Montmeloko probaren une batean. HITZA

tzigarren. Txapelketa honetan bigarren egin dugu eta hori ez genuen espero, gurea baino talde hobek bazeudelako», azaldu dio piloto irurarrak HITZARI.

Lopetegui bera ez ezik, aurten Wurth babesle berria ere gustura zegoen emaitzekin: «Lehengor urtean 27. amaitu zuten eta aurten asko hobetu dugun», dio. Ekipoan, Lopetegiz gain Tony Gil eta Fernando Martin pilotoak aritu ziren motoaren

gainen ordezkatzeko. Gogortasuna da 24 orduko proba honen berezitasuna. «Mugan joaten zara, batez ere hasieran. Gero gorputza nekatzen den heinean erritmoa jaisten joaten zara», azaldu du piloto irurarrak.

Lasterketa ez zen hasi nahi bezala. «Gasolina-bonbarekin arazo izan genuen, ez zuelako gasolina nahikoa igotzen eta orduan 10.000 bueltatik ez zen pasatzen. Arazoak konturatu

ginenean, tanda kronometratuak ziren», azaltzen du Lopetegik. Horrela, arazo hori medio, 38. postuan atera ziren lasterketan. «Zenbat eta aurrerago atera orduan eta hobeto izaten da, moto gutxiago izaten baituzu aurreratzeko eta lasaia, trafiko gutxiagorekin ibiltzen zara», dio piloto irurarrak. Pixkanaka joan ziren postuetan aurrera egiten. Baina lasterketan zirela, beste arazo bat izan zuten: «Motorraren temperatura 120 gradutara igo zen eta gelditu egin behar izan genuen, begiratzeko nola zegoen. Hor pare bat buelta galduta genituen». Baina, azken finean, gustura egindako lanarekin.

Erresistentziako Txapelketa bukatuta, hemendik aurrera Abiadurako Txapelketako lasterketa dituzte. Lopetegui piloto dela. Zabaleta ibartarrak laguntzen dio mekanikari lanetan. Baina txapelketa horretan ez dute babeslerik eta dena poltsikotik jarri behar izaten dute.

ANOETA ▶

## Tutorearen bisita izango dute bihar KZgunean

ERREDAKZIOA

Anoetako KZguneko tutorea bihar izango da, 09:00etatik 13:00etara, eta emango duen mintegia *Mikologia Iberdrola* da. Bi orduko izango da, 10:00etatik 12:00etara. Mintegi hau egin nahi dutenek ez dute izena eman behar aurretik. Nahikoa da bertaratzeari mintegia hasten denarako. Bestalde, KZgunean autonomoentzat eta enpresa txikiak (10 langile baino gutxiagokoak) prestakuntza ikastaroak antolatuta dira uztaileko. Izena emateko udaltxerara deitu behar da.

VILLABONA ▶ KULTURA

## Euskal dantza ikastaroan izena emateko aukera

«Haur eta gaztetxoaren artean dantzarako grina bultzatzea» du helburu Oinkarik

ERREDAKZIOA

Oinkari dantza taldeak datorren ikasturterako —zazpigarren urtez jarraian— umeentzako dantza ikastaroak antolatuta ditu. «Gure helburua haur eta gaztetxoaren artean dantzarako grina bultzatzea litzateke, horretan egingo dugularik ahalgaitz nagusia», azaltzen dute dantza taldeak. Euskal dantza eskola hiru urtetik gorako haurrei zuzendurik dago. Entseguak, bat astean gutxienez, Txermingo Ikastolako ganbaran egingo dira. Dantzari tal-

deak eta entsegu egunak zehaztu ondoren, uztailearen 18an ezarriko dituzte dantzarien listak Txermingo Ikastolako ate nagusian eta [www.oinkari.net](http://www.oinkari.net) web orrian. Ikastaroen kostua 6 euro ordua hilabeteko izango da.

Izena emateko aukera ezberdinak daude: posta elektronikoa bidaliz [harremanak@oinkari.net](mailto:harremanak@oinkari.net) helbidera; 660 139380 telefono zenbakian eta gaur, bihar eta etzi Villabonako liburutegi gainean dagoen Euskalttegiko bulego batean, 18:00etatik 19:30etara.

ANOETA ▶ GIZARTEA

## Uztaila guztian zehar ekitaldiak Gaztetxean

Hitzaldiak, bideo emanaldiak eta txapelketa ezberdinak antolatuta dituzte hil honetarako

ERREDAKZIOA

Anoetako Gazte Asanbladak uztailean zehar hainbat ekitaldi antolatuta ditu: hitzaldiak, bideo emanaldiak eta txapelketa ezberdinak. Gaur bertan bideo emanaldia izango da *Hotel Ruanda* filmarekin. Bihar ping-pong txapelketa egingo da.

Datorren astean hitzaldi batekin hasiko dira. Mikel Errazkin Espainiako Gerra Zibilari buruz ariko da asteartean, hilak 12. Hurrengo egunean, asteazkena, hilak 13, bideo ema-

naldia: *Los caballeros de la mesa cuadrada*. Hilaren 14an, partxis lehiaketa egingo dute.

Ekitaldi guztiak Gaztetxean izango dira. Hitzaldiak 19:00etan izango dira; bideo emanaldiak 22:30ean eta txapelketa osteguneko asanbladaren ondoren, 23:00ak aldera. Bestalde, uztailean eta abuztuan zehar frontenis txapelketa egingo dute. Astearte gauean izango da, 22:30ean herriko frontoian. Izena eman daiteke Itzuli tabernan. Bikote bakoitzak sei euro jarri behar ditu.

UDA HONETAN JANTZI EZAZU  
**HITZAREN KAMISETA**

SALGAI HITZAREN egoitzan eta  
**OSKI** GAZTEA  
Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21  
TOLOSA

AMEZKETA ▶

**XVI. Joxean Tolosa Txapelketako lehen partidak**

Iragan ostiralean, larunbatean eta igandean 15 jokatu ziren guztira

N. LATABURU

Pasa den asteburuan abian jarri da XVI. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa Amezketan. Guztira 15 neurketa izan dira jokoan, ostirala, larunbata eta igandean banatuta. Bi mailetan sailkatu dira pilotariak, kadeteak eta gazteak, hain zuzen ere.

Hauek izan ziren lortutako emaitzak, egunez egun. Ostiral gauean hiru partida izan ziren. Lehen biak kadeteen mailakoak; azkena, berriz, gazteena. Horrela, Pinar (Villabona) 0- Iriarte (Burlada) 18 eta Ariznabarreta (Zegama) 18-Hernandez (Villabona) 9ko markagailuekin amaitu ziren kadeteen neurketak eta Alonso (Ikaztegieta) 15- Martinez (Lizartza) 18 gazteena. Larunbatean bi txanda egin ziren, guztira 8 partiduekin. Hauek izan ziren emaitzak: Esnaola (Usurbil) 0-Errazkin (Bidania) 18, Arretxe (Villabona) 7- Artola (Amezketak) 18, Pina (Burlada) 18-Esnaola (Andoain) 6, Urrutia (Txaruta) 13-Esnaola (Zubillaga) 18, Nazabal (Zaldibia) 10-Albisu (Ataun) 18, Iribar (Antiguo) 18-Arratibel (Ataun) 16, Agirre (Olazti) 16-Epelde (Azkoitia) 18, Zabala (Aduna) 11-Fernandez (Olazti) 18. Igandekoetan, berriz, emaitza hauek lortu ziren. Iraola (Beasain) 3-Diez (Arrigorriaga) 18, Yeregi (Azpeitia) 18-Goienetxe (Bera) 10, Fernandez (Antiguo) 18-Goñi (Txaruta) 17 eta Azkarate II (Oñati) 9- Iraola (Añoraga) 18.

TOLOSA ▶ GIZARTEA



Alde Zaharreko bizilagunen elkarteak antolatu ditu sanferminak, bereziki, haurrentzat. HITZA

**Sanferminak gaur eta bihar Alde Zaharrean**

Alde Zaharreko Bizilagunen Elkarteak askotariko ekitaldiak antolatu ditu haurrentzat; txupinazoarekin hasiko da festa

IRATXE ETXEBESTE

Alde Zaharreko Bizilagunen Elkarteak antolatuta, sanferminak ospatuko dituzte gaur eta bihar Tolosako Alde Zaharrean. Iruñekoak dira Euskal Herri osoan ezagunen direnak, eta horien parekoak ez dira izango Tolosako Alde Zaharreko herritarrek antolatutako jaiak, baina nolabaiteko antza izan izango dutela esan daiteke, ohiko txupinazoarekin hasi eta *Pobre de mi* kantatuz amaituko direlako.

Haurrentzako modukoak dira Alde Zaharreko bizilagunek egunotarako prestatu dituzten ekimenak: haur jolasak, puzgarriak, entziero txikia... Eta, horrexegatik, umeei egin diete antolatzaileek bereziki Alde Zaharreko sanferminetara joateko deia. Iruñean egiten duten moduan joatea eskatu diete, gainera: zuriz jantzita eta zapi gorria lepoan dutela, hain zuzen. Hala eta guztiz ere, tolosar guztientzat luzatu nahi izan du te elkarteak kideek sanferminetan parte hartzeko gonbita.

EGITARAU ▶

Alde Zaharreko Bizilagunen Elkarteak askotariko ekintzak antolatu ditu gaurko eta biharko, bereziki haurrekin pentsatuta. Plaza Berrian egingo dituzte ekitaldi horiek guztiak, ondorengo orduetan:

GAUR

**12:00.** Txupinazoa, sanferminei hasiera emateko. Jarraian gozokiak eta globoak banatuko zaizkie bertara hurbiltzen diren haurrei.

**12:00-13:00.** Nafarroako jotak entzun ahal izango dira megafoniatik. Txupinazoa jaurtiki eta berehala buruhandiek irtengo dute kalera.

Aspaldiko kontua da berez Tolosako Alde Zaharrean sanferminak ospatzearen kontua. Tuerto tabernako jabe Villanuevak sortu zuen ideia— Nafarroako Artaxona herrikoa baitzen bera—, eta Miguel Angel Bermudezek jarraitu zion

**17:30.** Haur jolasak eta puzgarriak, bi bat orduz.

BIHAR

**12:00.** Suziriak jaurtiko dituzte eta era berean, Nafarroako jotak entzuteko aukera izango da megafoniatik. Ordu berean, buruhandiek jardungo dute Alde Zaharreko kaleetan zehar. **17:30.** Entziero bikia izango da Plaza Berriatik aterata; Errementari kalea eta Korreo kalea zeharkatu ostean Plaza Berrian bukatuko da berriro. Ondoren, txokolata banatuko dute partehartzaile guztientzat. **20:00.** *Pobre de mi* abestuko dute sanferminei behar bezalako bukaera emateko.

ahalegin horretan. Beste batzuk ere izan dira sanferminen antolatzaile gerora: Shanti, Ikatza, Laier eta Xirimiri tabernak, esate baterako.

Urtetan galduta izan den ohitura berreskuratuko dute bizilagunek gaur.

ALEGIA ▶

**Etxale Kuyons Xantoxen txapelketako irabazlea**

Iragan larunbatean jokatu zuten finala Kokox klan taldea aurkari zutelarik

N. LATABURU

Xantoxen omenezko futbol txapelketak badu irabazlea dagoeneko. Etxale Kuyons taldea izan da, iragan larunbatean Kokox klan taldearen aurka penalti jaurtiketetan irabazi ostean, partida 2-2 amaitu ondoren. Hasieran Etxale Kuyons aurreratu zen 2-0 Gari eta Gutiren golei esker, baina lehenengo zatia amaitu aurretik Kokox Klanekoek lehenengo gola sartu zuten, *Txanpioren* eskutik. Bigarren zatia ere lehenengo bezain borrokatua izan zen. Baina gol bakarra Kokox klanekoek sartu zuten, berriro ere *Txanpio* izan zelarik golegile. Epaile lanetan Jon Ander *Beltxa* gaztea aritu zen. Horrela, Kokox klanekoek txapela galdu dute, azken urteetan beraiek irabazi baitute txapelketa. Finalera jende gehiagi gerturatu ez bazen ere, zirrara ez zen falta izan uneoro neurketan. Eguraldia lagun, jokalariek bere indar guztiak jarri zituzten taldearen zerbitzura.

Bestalde, umeen txapelketak aurrera darrai eta asteburu honetan ere jokatu dituzte norgehiagoka gehiago.

Xantoxen omenezko txapelketako sari banaketa herriko Karmen Jaietan antolatuko dute, ostiraleko herri bazkariaren ondoren, hain zuzen ere. Bertan irabazle eta jokalaririk hoberenentzat sariak banatuko dituzte. Antolatzaileek pozik daude lortutako emaitzekin.

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Zorion agurrak. Ama, aita, aitona, amona, bikoteak, semea, alaba, laguna edo bizilaguna zoriandu nahi duzula? Bere urtebetetze eguna dela? Ezkundu egiten dela? Egunkarian argitara emandako zorion agurrak ikus ditzakezu Interneten, HITZAREN web orrialdean. Sartu eta ikusi!

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio berean

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

**TOLOSako UDALA**

IRAGARKIA  
LEHIAKETA

Gobernu Batzarrek, 2005eko ekainaren 13an, ondorengo lanak kontratatatzeko baldintza administratiboen agiria hau onartu zuen: T.2 "Santa Lutzia eremuko urbanizazio-proiektua eta obra-zuzendariaren idazteko lanak"

1. Helburua, Santa Lutzia eremuko urbanizazio-proiektua eta obra-zuzendariaren idaztea.
2. Kontratuaren prezioa: 71.000 €. BEZA barme [obra-zuzendariaren ordainsariei dagokienez, sartuta daude solik: goi-zuzendariarenak].
3. Ezekezio epea- 2 hilabete, kontratua sinatzen denetik.
4. Behin-behineko fidantza, 600 euro.
5. Behin betiko fidantza- Kontratuaren aurrekontuaren % 4
6. Espediente ikusteko- Tolosako Udaletxeko Hirigintza eta Obra Departamentuan; plaza Zaharra 6-B, Tel.: 943 697 451
7. Eskaintzak aurkezteko tokia eta epea- Tolosako Udaletxeko Sarrera Erregistroan —plaza Zaharra, 6-B—, 2005eko uztailaren 19ra eguerdiko 13:00ak arte.

Tolosan, 2005eko uztailaren 5ean  
ALKATEA

## ERAKUSKETA ▶



**Aranburu Jauregia.** Erakusketa amaitu berri da Aranburu Jauregian, eta dena jaso dute; argazki honetako aretoak bete dituzte, oraingo honetan, Dicky Rekalderen lanek. JOXEMI SAIZAR



**Koldo Mitxelena.** K.M. 3 irudian ere oraindik nabari daitezke aurreko erakusketak utzitakoak. J. SAIZAR



**Hutsik?** Erakusketa paratu duen aretoen argazkiak dira. Lanik gabe, bai ez hutsik. J. S.



**Kursaal.** *Kursaal 1* du izenburu argazki honek. Eskailerak, eta arteak utzitako oihartzunak, betetzen dute aretoa. J. SAIZAR



**Montehermoso.** Hutsik egonda ere, indar handia dute Kultur Zentro horretako aretoek, *Montehermoso 1* argazkian. J. SAIZAR

# Beterik dauden areto huts horiek...

Dicky Rekalderen 'Ipuin moderno bat' erakusketako lanak ikusgai dira egunotan Aranburu Jauregian

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Sukaldaria.** Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da.  
Deitu 943 69 19 33.

**Neska euskalduna.** Neska euskalduna behar da, Belauntzan, irailetik aurrera 6 hilabeteko haurra zaintzeko.  
Ordutegia: 07:30-14:00. 608 77 48 44.

### LEIRE MONTES

«Arte guneak dira, bertan egon diren objektuak joan berri direnean jasotakoak. Kasu askotan, oihartzunek, itzalek, orbanek bizirik jarraitzen dute oraindik».

Hala laburbildu du Dicky Rekalde artista iruindarrak bere lanaren mamia. Arte guneei ateratako argazki horiek dira, hain zuzen ere, egunotan Aranburu Jauregian paratu ditue-

nak, *Un pequeño cuento moderno* izenburupean.

Aranburu Jauregia, Koldo Mitxelena, Kursaal, Montehermoso, Trayecto... Bere erakusketak jarri dituen lekuetako irudiak dira Rekaldek zintzilikatu dituenak. «Agerikoaz haratago dagoena islatzea» dute helburu, «jendea benetan hunkituko duena jasotzea».

Horrela, hutsik agertzen dira aretoak. Hutsik dirudite behintzat. Baina, artistaren esane-

tan, «erabat beterik daude: inpresioez, sentimenduz, bizipenez». Beren hormak apaintzen dituen artea desagertu denean, «esanguratsua, indartsua, boteretsua» agertzen dira aretoak.

«Arte diren objektu horiek, merkantzia balioaz gain, zer adierazten dute?», galdegiten du Rekaldek areto huts horien aurrean. Juan Zapater adituak hitz egiten dutela dio: «gero eta susmagaitzago eta ulertezinago iruditu, gero eta sakonago eta biziago dei egiten digute. Zirikatatu eta esnarazten gaituzte. Dinosaurioen aztarnak, Bizantzioko margolanak, kobazuloetako pinturak, Mauthauseneko isiltasun zirrarragarria... datozkit burura. Horregatik hunkitzen naute Rekalderen argazkiek. Sortu zituen desagertu egiten delako gure irudimenari lekua uzteko».

## Sariak non-nahi

Dicky Rekalde 1963an jaio zen, Iruñean. Aranburu Jauregikoa da jarri duen bakar-kako azken erakusketa; aurrean ere Iruñeko Gotorlekuan paratu ditu bere lanak. Donostian, Bilbon, Madrilan, Zaragozan (Espainia),artzelotan (Herrialde Katalanak), eta Berlinen (Alemania) ere izan da. Taldeka, 1984an hasi zuen ibilbidea, eta ia egin zuen bere azken erakusketa, Perez de Albeniz Galerian. Iruñeko Artista Gazteei Saria (1986), Nafarroako Jaialdien Kartel Onenari Saria (1987, 1989) eta Gasteizko Eskultura Publiko Garaikidea Saria jaso ditu, besteak beste. ◀

GIZARTEA ▶

IRATXE ETXEBESTE

Hazten doa egunez egun herriaren 750. urteurrenaren harira sortutako fundazioa. Hazten ere fundazio hori hilabetez hilabetez antolatzen ari den ekimenen zerranda. Eta hazten, ekimen horiek herritarren aldetik jasotzen ari diren arreta eta ikusmina.

Orain hilabete eskas eman zuten ezagutzera udal ardura-dunek Tolosa 750. urteurrena fundazioak abian jarritako web orrialde berria, eta harrezkero asko eta asko dira fundazioa osatzen duen lan-taldearen lana gertutik jarraitzen duten herritarrek. Orain artean burututako proiektuez gain, herriari buruzko datu historikoak, Tolosa 750. urteurrena fundazioaren nondik norakoak eta aurrera begira dituen asmoak ezagutzeko aukera izango dute tolosarrek, besteak beste, [www.tolosa750.net](http://www.tolosa750.net)-era sartuz gero.

Baita herriko hainbat eta hainbat gairi buruz hedabide batean eta bestean argitaratu diren berriak jakiteko ere. Astean bitan eguneratzen dituzte albiste horiek [albistegi@izeneko.atalean](mailto:albistegi@izeneko.atalean); lehenengo euskaraz eta ordubete beranduago gaztelaniaz. Web orrialdea bera lau hizkuntzatan kontsultatu ahal da, gainera: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta katalanieraz, hain zuzen ere.

Denda birtualaren bitartez, Fundazioak argitara emandako produktuak erosteko parada ere izan badute eskualdeko herritarrek web orrialde horretan; salgai direnetako bat da Tolosa 750. urteurrena fundazioak eta Tartalo diseinu eta serigrafia ziguiluarekin elkarlanerako adostutako hitzarmenetik sortutako kamiseta. Sustatzailen hitzetan, «urteurreneko ospakizunetan zehar erabiltzeko» atera dituzte. Kamisetak, kolore eta neurri guztietakoak, Tolosaldea Tour-en bulegoan ere erosi ahal izango dira.


1996az geroztik ari da Tartalo marrazkiak edo diseinuak sortzen eta kamisetetan serigrafiazten. Bere produktuak Euskal Herriko denda ezberdinetan ezagutzera ematen aritzen lehen urteetan, baina, pixkanaka, bide hori alde batera utzi eta Euskal Herriko artisau eta Erdi Aroko azoketan parte hartzen hasi zen, erosleekin harreman zuzena sortuz. Diseinu guztiak orijinalak dira, bertan sortutakoak, eta kamisetaz gain, haurrentzako body-ak, baberoak eta jertsetxoak ere serigrafiazten ditu marrazki alaiekin. Informazio zabalagoa eta irudi ezberdinak lortu ahal dira [www.tartalo.net](http://www.tartalo.net)-en.

# Salgai daude Tolosa 750 fundazioak ateratako kamisetak

Tartalo diseinu eta serigrafia ziguiluarekin elkarlanean egin ditu; herriaren urteurreneko ospakizunetan erabiltzeko dira



Tartalok egin du diseinua. HITZA



## Puntuak bildu eta oparia eraman.

kutxako zure kreditu-txartelarekin erosiz gero, puntuak bildu eta opariak irabaziko dituzu.



Orain, kutxako Visa Classic, Visa Oro, MasterCard Urdina eta e-Business kreditu-txartelak saria dute. Saltokietan, jatetxeetan, gasolindegietan... Erabiltzen duzun bakoitzean, opariekin truka ditzakezun puntuak lortuko dituzu edo, aukeran, GKE bati eman. Telebistak, kamerak eta bizikletak zain dituzu, baita [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean ikus ditzakezun opari ugari ere. Bildu puntuak eta eraman itzazu!

Oraindik kreditu-txartelak ez baduzu, eskatu lasai gure bulegoetan.



2005eko uztailearen 1etik aurrera balio duen sustapena, kutxako Visa Classic, Visa Oro, MasterCard Urdina eta e-Business izenpean jaulkitzen dituen kreditu-txartelarako.



## LEABURU ▶ AZPIEGITURAK

# Lehen pilotakada hotsak Ttonttorpe pilotaleku berrituan

Pilotalekua estali eta margotu egin dute; herritarrak «oso gustura» daudela emaitzekin azaldu du alkateak

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den ekainaren 30ean inauguratu zuten Leaburuko frontoi berritua. Estreinatuta berriz, iragan igandean egin zuten San Pedro jaien barnean antolatutako pilota partidekin.

Bi herrikuntza nagusi izan ditu frontoiak: batetik, erabat estali dute, lehen estalita ez egoteak sortzen zituen arazoak ekiditeko, eta bestetik, barrualde guztia margotu dute berde eta izokin kolorez. Behin berrikuntzak burututa izena aukeratzea baino ez zitzaion falta frontoiari. Azkenean, Ttonttorpe izena eman diote, haren gainean dagoen Ttonttor mendia-izenaren ondorio bezala.

Jose Kruz Goñi Leaburuko alkateak azaldu duenez, «iaz jarri ginen harremanetan Gipuzkoako Aldundiarekin eta 12.000 euroko aurrekontua onartu zuten berrikuntza lane-tarako». Behin lan guztiak amaituta gastu orokorra 65.000 eurokoa izan dela jakinarazi du alkateak. Horrela, Aldundiarekin harremanetan jarraitzen dutela, eta aurten ere laguntzak jasotzea espero dutela azaldu du. Izan ere, «ekainaren 30ean Aldundiko ordezkariak etorri ziren pilotalekua- ren inauguraziora bai eta lanen emaitzak ikustera», azaldu du,



Pasa den igandean jokatu zituzten Ttonttorpen lehen partidak. HITZA

eta «oso gustura» daudela eta «lan txukuna» egin dela, gaineratu du. Halaber, herritarrak ere oso pozik daudela pilotaleku berrituarekin nabarmendu du Leaburuko alkateak.

Berrikuntzaren ondorioz ekitaldi gehiago gauzatzeko aukera izango da bertan, eta aldi berean jende gehiago bertaratu da. Hori dela-eta pilotalekuaren funtzionamendua arautu egin beharko dutela esan du, eta herritarrek lehen-tasuna izango dutela aurreratu du. Bestalde, berritze lanak jarraituko dutela eta orain kan-

poaldeak hartuko duela garrantzia azpimarratu du.

## Lehen pilotakadak

Igande eguerdian San Pedro jaien barnean jokatu ziren lehen norgehiagokak Ttonttorpen. Pilotari gazteak, eskualdekoak gehienak, aritu ziren nor baino nor. Hauek izan ziren emaitzak: infantiletan, Urbietan-18; kadeteetan Esnaola-Jauregi 9 Elustondo-Gerra 18; jubeniletan, Zelaia-Galarza 15 Iraruta-Ugartemendia 18.

## BERASTEGI ▶

### Calahorrara bidaia antolatu du Gaztainondok

Berastegiko Gaztainondo jubilatutako elkarteak uztailaren 21ean Calahorrara irteera antolatu du. Bertan, eliza eta azoka biziak dute, eta ondoren Azagrara joango dira eta Venezia hostalean bazkalduko dute. Izen eman nahi duenak Gaztainondo elkartean bertan egin dezake, edo 943 68 32 02 zenbakira hots eginez. Bazkideek 22 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek 25.

## ALEGIA ▶

### Interneten banda zabala jarriko dute laster

Alegiako Udalak jakinarazi du laster izango dela herrian banda zabaleko Internet. Zerbitzu honek banda zabala eta telefonía emango ditu, eta Euskaltelek komertzializatu-ko du. Interesatuak jakinaraz-ten zaie Euskaltelek informazio bilera bat egingo duela uztailaren 8an, etzi, Alegiako Kultur Etxean 19:30ean. Bileran horretan, banda zabalar- buruzko xehetasunen berri emango dute.

## LIZARTZA ▶ JAIK



60 lagun inguru bildu ziren afarian. HITZA

## Festa giro polita Gazte Egunean

Larunbatean izan zuten Lizartzan Gazte Eguna, eta eguraldi onak lagundurik giro polita izan zela azaldu dute antolatzaileek. Poteoarekin eman zioten hasiera jaiari, eta ondoren afaria prestatu zuten denen artean. 60 bat lagun bildu ziren bertan. Gauean musika Jone bakarlariak eta Izeba Pilarren ilobak anotarrek jarri zuten. Atarrabiatik asteburu pasa etorritako 30 gazte inguru ere elkartu ziren festan. Bestalde, Azkotiako Janear-J perkusio taldea etortzeko bazen ere, ez zen azaldu antolatzaileen eta festara hurbildu zirenen harridurarako, baina hala ere «egunsentiar- tarte luzatu zela jaia eta ederki igaro zutela», azaldu dute.

## iragarki laburrak ▶



**Abaltzisketa.** Sei etxe abiki: sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan; hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan;

bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.  
**Alkiza.** Familia bakarreko etxea, eraikitako 300 m<sup>2</sup>, 4.000 m<sup>2</sup>-ko lur-saila etxebizitzarekin eta beste 4.000 m<sup>2</sup>, bi partzelatan.  
**Anoeta.** Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.  
**Asteasu.** 1.050 m<sup>2</sup>-ko bi solairuko eta 250 m<sup>2</sup>-ko solairu artean duen pabilioia salgai edo alokeran. Mota guztiak tresna eta hobekuntzekin hornitua.  
**Beasain.** 45 m<sup>2</sup> erabilgarriko etxebizitza eta lokal komertziala salgai.  
**Belauntza.** 1.050 m<sup>2</sup>-ko pabilioia salgai; oso argitsua.

**Berrobi.** 50 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, salgai, planta baxuan. Berritua.  
**Berastegi.** 100 m<sup>2</sup>-ko bi solairuko borda salgai, moldatu beharra, 75.000 m<sup>2</sup>-ko lur-saila, 35 eta 50 urteko laritz pinuarekin.  
**Donostia.** Saguesen, 70 m<sup>2</sup>-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiarekin.  
**Errioxo.** Hormillan, Naxeratik 3 Km-tara, 11 etxe abiki salgai, beren lorategiarekin eta urbanizazioko igerilekuarekin (151.000 euro).  
**Ibarra.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, kanpokaldera, bizitzera sartzeko, garajea aukeran.  
**Lasarte.** Hirugarren solairuan, 65 m<sup>2</sup> erabilgarriko etxebizitza salgai Oztaran kalean. Kanpokaldera.

**Lizartza.** Eraikuntza berrikoak, 350 m<sup>2</sup>-tik hasita, 14.000 m<sup>2</sup> pabilioi salgai.  
**Naxera.** Bost solairu, igogailua, bokoa eta terraza zabaleko azken etxearen eskaintza eta salmenta.  
**Tolosa.** Lurre, 98 m<sup>2</sup>ko etxebizitza. Kanpokaldera, igogailua, trasteleku eta garaje marrarekin.  
**Tolosa.** Santa Klara kalean, 90 m<sup>2</sup> dituen etxebizitza berritua salgai. Atzealdean baratza eta txabola propioarekin.  
**Tolosa.** Gernikako Arbolan, 155 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, kanpokaldera.  
**Tolosa.** Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. Kanpokaldera eta, eguzkitsua. Igogailuarekin. Berritzeko premia.

**Tolosa.** Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m<sup>2</sup>-koa. Kanpokaldera, igogailua eta trastelekuarekin.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel, duplex-a estreinatzeko.  
**Tolosa.** Apattaerrekian, lehenengo solairuan etxebizitza eta bigarren solairuan duplex-a. Berritua. Garajea eta lur-sailarekin.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko apartamentuak, 65 m<sup>2</sup> erabilgarri.  
**Tolosa.** Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko bi etxebizitza salgai.  
**Urretxu.** 780 m<sup>2</sup>-ko pabilioia, 300 m<sup>2</sup>-ko solairu-tartearekin. Erabat istalaturik eta erakusketa zabalarekin.

## ARESO ▶ SOKATIRA

JAIONE ASTIBIA

«Ez dugu nahi bezala tiratu», horixe zioten Aresoko tiratzaileek, igande eguerdian Aresoko plazako larratxean jokatu zen Euskal Herriko Lurgaineko 560 kiloko jardunaldia bukatuta. Etxean jokatzeko egokiera izan eta gauzak ez zitzaizkien nahi bezala atera. Aipatu zuten, sokan ohikoa den tiratzaile batek, sukarrarekin egona izanik, ez zuen plazaratzerik izan eta taldekide berri bat sartu beharra izan zuten. «Eta, gainera, besteak ongi aritu dira», erantsi zuten: «Ez dago aitzakiarik». Kontuak kontu, sailkapen orokorrean, bigarren lekua lortu zuten eta oraindik 3. jardunaldia falta da, Laukizen, hilaren 30ean.

Igandean, 6 taldeen artean, eta Barrikan lortutako puntuen arabera, Goiherri A, lehen postuan, Gaztedi A eta Areso beraren artean zegoen burruka: Goiherri bereak eta bi ematera etorri zen, buruari eusteko; beste biak, leku hori berengantzeko gogoz ziren.

Tiraldietan ederki asko igarri zen lehiakortasun hau: elkarren aurka aritzea egokitu zitzaizkien tiraldiak izan baitziren luzeenak eta gogorrenak. Areso eta Goiherri A-ren arteko tiraldia izan zen jardunaldiko lehenetarikoa ere: lehen soka, 9.34ko iraupenekoa izan zen, Aresoren alde; bigarrena, berri, 4.27tan, goiherritarrentzat. Berdinketarekin, puntu bana gehitu zuten bi taldeek.

Tartean beste taldeen arteko tiraldiak egin ondoren, hauek orokorrean, laburrago jo zuten,

# Bigarren dago Areso, Gaztedi A-rekin batera

Goiherri A-k, beste 6 puntu eskuratuta, indartsuena dela erakutsi du berriz



Eguzkiak bete-bete jotzen zuen plazako larratxean, beroa zen. J. ASTIBIA

## SAILKAPENA ▶

Taldea	I	II	Guz.
1. Goiherri A	6	6	12
2. Areso	5	4	9
2. Gaztedi A	4	5	9
3. Gaztedi B	3	3	6
4. Gebxo	1,5	2	3,5
5. Goiherri B	1,5	1	2,5

3 minutu baino luzeago ez sokako, berriz ere Areso eta Gaztedi Aren arteko norgehiagoka suertatu zen, sailkapenean 2. eta 3. lekuan egoki. Gainera honetakoan izan zen jardunaldiko tiraldirik luzeena ere: 10 minutu luzetan, soka arrastotik apenas mugitu gabe, tentsio ikaragarrian tiran eduki eta epaileek nulo jo zuten eta ezta-kak mugitu, ordurako zuloak ere oso markatuta zeudelako. Halako tiraldi luzea eginda, leher nekatuta, leku berrian, oihi batean aritu ziren tiran, kosken babesik gabe, 1.58tan eta 1.30etan, bi sokak Gaztedi irabazi zituen. Aresok gainerako taldeekin egindako tiraldiak irabazi egin zituen: hiru irabazi, bat berdindu eta bat galdu. Goiherri A eta Gaztedi A-ren artean egindakoa ere aipatzekoa da: lehen soka 6.01ekoa, oso gogorra, eta bigarrena lehen kolpearri esker 0.35etan berenganatu zuten, Goiherri. Tiraldi honekin erabaki zen ia eguneko sailkapena eta txapelketakoa ere. Tiraldi hau bukatuta, goiherritar tiratzaileen bat pozaren pozez negar malkotan ere egon zen.

Larunbatean dira, 600 eta 640 kiloko azken saioak, Goiherri, San Kristobalen.

## LEITZA ▶

## Bihar jokatu du Barriolak, San Fermin sariko finala

Aimar Olaizola izanen du aurrez-aurre Labrit pilotalekuan jokatu duten partiduan

J. ASTIBIA

Iruñeko sanferminetako egun handia izanik, Abel Barriolak eta Aimar Olaizola bihar jokatu dute Labriten. Aspe eta Asegarek enpresek antolatzen duten San Fermin sariketako finala.

Eta hain justu, leitzarrak eta goizuetarrak buruz buru, lau t'erdian jokatu duten partidua horretarako, atzo egin zuten material hautaketa. Barriolak, larru bueltatuko 104,9 eta 102,9-na gramoko pilotak saskiratu zituen bitartean, Olaizola IIak, motelxeagoak, 104.2 eta 102,4-nakoak hartu zituen.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebexa: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
  - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

## Garraioak.

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egotza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## LEITZA ▶ PILOTA

## Plazako txapela, Harkaitz Bengoetxea eta Aimar Sagastibeltzarentzat

Aldaia-Olano azpitxapeldunei 22-13 irabazi diete; Alduntzin-Sagastibeltza, hirugarren

J. ASTIBIA

Larunbat arratsaldean jokatu zituzten Plazako XIII. Eskuzko Binakako Txapelketako azken partidua, bertara bildutako pilotazale mordoskaren aurrean eta hantxe erabaki ziren aurtengo saioko txapelaren jabetzak: Harkaitz Bengoetxea eta Aimar Sagastibeltza dira horiek, 22 eta 13ko emaitzarekin, Igor Aldaia eta Unai Olano, izat eta aurreko urteetako txapeldunei, lekua kendu zieten.

Aurrenean, besteak hasi ziren irabazten, baina tantoak luze eginez hasi, txapeldunek pilota guztiak on egiten zizuten, eta bukatu nahian, zirtzart, pilotakada batzuk arrastoz kanpo atera zitzaizkien Aldaia-Olanori, eta epailearen tanto oihiak, Bengoetxea-Sagastibeltzaren aldeko izan ziren. Aipatzekoa da partidua iraupena bera ere, ordu eta laurdenez aritu baitziren jokatu



Bengoetxea satea egiten, Sagastibeltza laguna begira duela. J. ASTIBIA

an lau pilotariak egiten zuen beroarekin, bukatzerako plaza itzaldu bazuen ere. Txapeldun berri dira, beraz, Bengoetxea eta Sagastibeltza. Eta beren saria jaso ere, jaso zuten, ondoren, gainerakoekin batera.

Finala baino lehen, Juan Jose eta Antonio Mariñelarena anaia, eta Iñaki Alduntzin eta Joseba Sagastibeltza, 3. eta 4. lekua zeinentzat izan burrukatu zuten, azkenik, 22-16 emaitzarekin, azken hauek jabetuz.



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko uztailaren 6a, asteazkena ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzena

17

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alegia.** Euskaltelek banda zabala sartuko duenez, informazio bilera etzi 19:30ean Kultur Etxean.

**Alegia.** Hilaren 15eko Festa Alternatiboetako bazkarirako txartelak salgai betiko tabernetan bost eurotan.

**Ibarra.** ENAren tramitazioa egin eta ziurtagiria dutenek deitu 635 00 94 96 telefonora berriro tramitatzeko, datuak galdu egin baitira.

**Tolosa.** Udaberri dantzari taldearen batzar nagusia etzi 19:00etan lokalean.

**Tolosa.** Kainoien jaitziera egiteko irteera antolatu du astebururako Oargik. Ostiral arratsaldean abiatu, larunbatean Gave de Herrera eta Cat de Pount arroila; eta igandeetan Bitet arroila. Prezioa: 70 euro (materiala, bidaia, kanpina, otorduak). Deitu 637 83 03 80 telefonora.

**Tolosa.** Uztailaren 8an eta 9an Herriarren Partaidetzako Jardunaldiak izango dira udal-etxean, iritzia emateko beharren inguruan. Parte hartzeko 943 69 74 50 telefonora deitu edo partehartu@tolosakoudala.net postara.

**Tolosa.** Udaberri dantzari taldeak dantza ikastaroak antolatu ditu 2005-06 ikasturterako. Igarondo igerilekuan. Izen-ematea, gaurtik etzira, 17:00etatik 20:00etara, Udaberriren lokalean (Igaralde kalea).

**Tolosa.** 20 orduko ikastaroa KZgunean, uztailaren 11tik 22ra, 8:00etatik 10:00etara edo 10:00etatik 12:00etara. Izen-ematea, bertan..

**Villabona.** Aizkardikoek Orio-Donostia irteera antolatu dute iganderako. Izena emateko, deitu 943 69 44 58 telefonora.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren 52. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, M.L. Amaro zuzoa 9. 943 67 51 18.

### IRRATIA

#### Txolarre

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.  
19:00. Errepublikapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Ez ahaztu argazki kamara

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶** Batzuk oporrak hasi dituzte jada eta kanpora joango dira; irailean oporrei buruzko HITZA Argazki Txapelketa izango da



Aurreko lehiaketan parte hartu zuen argazki bat, New Yorkeko irudi bat. ALURIA GOROSTIAGA

### ERREDAKZIOA

**A**urreko Aste Santuan hainbesteko arrakasta izan zuen Argazki Lehiaketa berriro antolatuko du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK uda ondoren. Horregatik ez ahaztu argazki kamara zure oporretan erabiltzea, leku edo une gogoagarri hori jaso ahal izateko.

Uztaila hastearekin batera jende askok oporrak hartu ditu eta horietako batzuk kanpora joateko aprobetxatzen dute. Abuztuan gehiago izango dira oporretan direnak —tarteen HITZAKO langileak—. Eta irailean denok lanera itzultitakoan, oporretan ateratako argazki horiek erakusteko garaia izango da.

HITZAK —aurreko edizioaren arrakasta ikusita— udako oporretako argazki horiekin lehiaketa bat antolatzea erabaki du. Uda honetan ateratako argazkiak izan beharko dute, berdin da tokia eta gaia: mendian ala hondartzan, atzerrian edo Euskal Herrian, paisaia, hiria, lagunak, objektuak, familia, etxea, bikotekidea... Uda honetan zure sormen artistikoa lantzen eta irudi orijinal hori bilatzen saiatu eta oporren amaieran, irailean, HITZARA bidali, posta arruntez edo elektronikoz.

Jasotako argazkiak egunkarian bertan argitaratuko dira eta argazki onenak aukeratu dira irabazleak zehazteko. Irakurleek ere bere botoa emateko aukera izango dute. Eta irabazleentzat sari ederrak izango dira, aurreko edizioan bezala. Badakizue: ez ahaztu argazki kamara.

### AGURRAK ▶

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!